

ARGIA.EUS/LARRUN

DRONEA

MENDE HONETAKO INPERIALISMOAREN FETITXEA



LARRUN #295

MUNDUKO BOTERE HARREMAN DESOREKATUEN IKUR ETA ERAGILE

EGILEA | **AXIER LOPEZ**
AZALA | **SHU OTERO**



Larrun hilabetekariei ahotsa jartzen diegu. Gorka Peñagarikanok gidatuta, egileak lagunduta, podcastera eraman dugu gaia: argia.eus/multimedia/larrun

Giza asmakizun oro lez, onena eta txarrena egiteko gai dira. Baina, tamalez, dronea, beste ezeren gaienetik, Mendebaldeko potentzia kapitalistek munduaren gehiengoa menpean jartzen jarraitzeko tresna nagusietakoa da. Zirrikitu teknologikoetatik haratago, fun-

tsezko pieza da bizi gaituen mundua eta geopolitika ulertzeko. Gerra Hotzak bonba atomikoa izan zuen fetitxe eta mehatxu. Bada, XXI. mendea dronearena da. Azter ditzagun zigorrik gabeko hilketetan txapel-dun diren hegazkin erdi-autonomo hauen sorrera, erabilera eta etorkizuna.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.868 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2024ko apirilaren 28a

Zemari Ahmadik kooperante gisa egiten zuen lan Kabulen AEBetako Kaliforniako Nutrition and Education International GKEan. 2021eko abuztuaren 29an, autoa ur-bidoiekin kargatu zuen aireportura eramateko. Drone bat bere gainean zuen zelatan. 16:50ean, Ahmadi bere etxean gelditu zen. Handik milaka kilometrora, AEBetan, dronearen irudiak aztertzeaz eta horren arabera jarduteaz arduratzen zen soldaduak ur-bidoiak lehergailuekin eta Ahmadi Estatu Islamikoko kide batekin "nahastu" zituen. Segundo batzuk geroago, Reaper MQ-9 droneak Hellfire misil bat jaurti zuen. Txatarra eta hondakin artean geratu ziren kooperantearen eta haren familiako bederatzi kideren gorpuzkiak, tartean zazpi haur. Afganistanen jaurtitako azken misila izan zen, armada okupatzailea herrialdetik (fisikoki) erretiratzen amaitu baino lehen, hurrengo egunean burutu zena hain zuzen ere.

Kasu ezagun hori inteligentzia militarren ezgauzaren adibidea da, baina are esanguratsuagoa da hilketaren ondoren gertatu zena. Hurrengo hilean, irailean, AEBetako Armadako Komando Zentraleko

buruak, Kenneth McKenzie jeneralak, hilketen erantzukizuna bere egin zuen. Urrian, zehaztu gabeko konpentsazio ekonomikoa eskaini zuten Pentagonoak biktimen familiei. Eta abenduan, McKenziaren gomendioari jarraiki, AEBetako Defentsa idazkari Lloyd Austinek iragarri zuen ez zutela hartuko inolako diziplinazko neurririk inoren aurka, drone eraso hori zela eta.

Hau da, "Lehen Mundutik" agindutako "Hirugarren Munduko" pertsonen hilketa indiskriminatua izan zen. Ez da salbuespena, antzeko milaka kasuetako bat besterik ez da, eta, ondo dokumentatuta eta bideoan grabatuta egon arren, egileak ez dira pasa ere egin epailearen aurretik. XXI. mendeko gerra eta geopolitika-ordena ulertzeko ispilu ona da. Mundu-ordena horretan edozein pertsona nahieran akaba daiteke, "terrorismoaren aurkako gerraren" izenean "prebentzio-ekintza" gisa. Metadatuetan, algoritmoetan, seinaleen analisisian eta nahieran diseinatutako delitu-patroietan oinarritutako hilketen aroa da, dronea ikur hartuta.

Droneentzat ez dago mugarik, ez fisikorik, ez moralik, ez justiziazkorik. Legearen gainetik dagoen estra-

tegia militar hori gerra konbentzionalen amaieratzat aurkeztu zuen haren babesle nagusiak, AEBetako Gobernuak. Zibilen bajak minimizatuko zituen, "zehaztasun handiko" tresna zelakoan, eta hala gerra "etikoago" bihurtuko zuen. Bi hamarkadaren ostean, ehiza-arma bihurtu dute dronea. Gatazka amaigabeak, segurtasun eza etengabea eta errugabeen odola munduan zehar barreiatzea da bere lorpen nagusia.

Munduko erdigune inperialistaren administrazio guztiek (Bush, Obama, Trump eta Biden) baliatu, bultzatu eta esportatu dute "droneen gerra". Operazio gehienak nazioarteko legetik eta gerraren oinarritzko arauetatik at egin dituzte, zigorrik gabe geratu dira, eta biktimen artean suntsipena, frustrazioa eta mendeku gogo bizia eragin dituzte, hainbat hamarkadatan ezabatzen zailak izango direnak. "Terrorismoaren aurkako gerrak" herritarrak bonbardatzen ditu baja masiboak eragiteko eta "etsaia" desmoralizatzeko, baina haren zeregina nagusia da "lehen" eta "hirugarren" munduen arteko arrakala finkatzea, agintzen dutenen eta hiltzen direnen arteko muga supremazista betiketzea.



Droneak lilura eta izua eragiten ditu neurri berean, bere hiltzeko ahalmena eskuratu dezaketenei ematen dien abantaila ukaezinagatik. Historiako aurrerapen teknologiko militar guztietan gertatu bezala –bonba atomikoa daukaten eta ez daukatenen arteko bereizketa zaharrak oso indarrean dirau–, teknologia hori erabiltzeko aukerarik ez duen populazioak, gehiengoak, are mehatxu handiagoa du buru gainean.

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko zientzia politikoetako irakasle eta politologo Enric Lujanek *Drones, sombras de la guerra contra el terror* (Droneak, terrorearen aurkako gerraren itzalak, Virus argitaletxea, 2015) liburuan dioen bezala, dronea ulertu behar da gizarte-harreman multzo gisa, indarkeria sistematikoaren eta Hirugarren Munduan zabalduetako ezkutuko gerraren barnean bideratutakoa. Droneen ia mende laurden bateko erabilera, kontraesan eta ondorio esanguratsuenak aletzen saiatuko gara orriotan.

ROBOT HEGADUN HUTSAK?

Dronea urrunetik kontrolatutako ibilgailua da, lurrekoa, uretakoa ala hegalaria. Bertsiorik ezagunena tripulaziorik gabeko hegazkina da. Askotarikoak daude, batzuk zentimetro batzuetakoak dira eta beste batzuek hogeita metro baino gehiagoko hegal-hedadura har dezakete. Drone hitzak “erlemando” esan nahi du ingelesez, eta intsektuaren burrunbari egiten dio erreferentzia, dronea hegan denean, motorrak sortzen duen antzeko zarata baxu, monotono etengabearekin alderatuta. Munduko hainbat txokotan izuaren sinonimo bilakatu den soinua.

Aireko dronea, lehen begiratuan, goi-teknologiako metalezko aparatua da, zeruak tripulaziorik gabe zeharkatzeko sortua. Gailu hauek telegidatutako hegazkin zaharren



AEBETAKO AIREKO ARMADA

MQ-9 REAPER drone baten mantenimendua, AEBetako Creech base militarrean.



“TERRORISMOAREN AURKAKO GERRA” GLOBALAK ARAU BIHURTU DU SALBUESPENEZKOTZAT JO DAITEKEENA: KONTROL JUDIZIALIK GABEKO HILKETA SELEKTIBOAK

bertsio hobetuak besterik ez dira. Hainbat teknologia berri uztartzeak egiten ditu berezi, hala nola geolokalizazioa eta aldi bereko datu-transmisioak.

Gure egunerokotasunean zein bitzita publikotik oso urrun dauden eremuetan azkar integratu dira, eskaintzen dituzten aukera uga-

rien ondorioz. Droneak zineman gozatzen ditugun plano ikusgarri askoren atzean daude, zooko animalien zaintzaileak dira, eraikin enblematikoak grafitigileen sinadurez “babesten” dituzte, mendiak eta basoak monitorizatzen dituzte suteak prebenitzeko eta itzaltzeko, obra garrantzitsuak gainbegiratzeko, labore-zikloak hobetzen laguntzeko, izurriteak prebenitzeko eta etorkizuneko ereiteak planifikatzeko erabiltzen dira, Instagramerako selfieak egiten dizkigute, eta... jarraipen polizialak ere egiten dituzte, BBK Live eta BECeko konbentzioen gaintik egiten dute hegan adimen artifizialarekin eta aurpegi-egaztuzarako teknologiekin hornituta, matrikulak arakatzen dituzte, migratzailearen “ehizarako” mugak patruilatzen dituzte, espiazten dute –paparazzi droneak ere badaude– eta, jakina, “selektiboki” hiltzen dute. Laster pizza etxera ekarriko digun tresna hori bera –Amazonen iragarri du drone bidezko banaketa 2024aren amaieran iritsiko dela

Europa-robot hegaldun hutsa baino askoz gehiago da.

Biztanleria zibilak oso mugatua du droneen erabilera, jenderik gabeko eremuetara mugatzen da, edo bestela agintaritzaren alde zuzeneko baimen berezia lortu behar da. Bere erabilera militarrek ordea ez du mugarik ezagutzen. Gaur egun, dronea da planeta osoan araketa, zelata eta suntsipen tresna nagusietakoa, baina, batez ere, droneak goitik behera aldatu ditu egun bizi ditugun kontrol- eta menderatze-moduak.

Ez dira gutxi "gaitz txikitzat" jotzen dutenak. Alegia, tresna eraginkorra dela diote "gizatasunez" -helburu militarra eta albo-kalteak bereizita-erabiliz gero. Baina Sonia Arribas gizarte-zientziatiko doktoreak dioenez, dronea, batez ere, gerra inperialistako piezarik txikiena da, eta bere osotasunean egin behar zaio kritika.

SORBURUA: DENA DA TERRORISMOA

2009 eta 2011 artean AEBetako Inteligentzia Agentzia Zentraleko (CIA) zuzendari izandako Leon Panettak adierazi zuen "matxinoen aurkako kanpainak" -drone bidezko hilketa selektiboak- *the only game in town* ("aukera bakarra") zirela, AEBen segurtasuna bermatzeko. Armamentu mota bakoitzak gerra kontzeptu jakin bat elikatzen duela berresten dute bere hitzek. Kasu honetan, Panettak "terrorearen aurkako gerra global" ezaguna zuen buruan.

"Gerra global" horrek arau bihurtu du garai batean salbuespenekotzat jo zitekeena: kontrol judizialik gabeko hilketa selektiboak. Munduko lehen drone programa AEBetako izan da, eta horrek ezarri du gerora beste herrialde batzuek, Israelek kasu, koptatu duten bidea. Programa horiek estatuaren ardurapeko hilketak instituzionalizatu dituzte: helburu-zerrendak prestatu, mehatxu-mailaren arabera sailkatu eta, azkenik, legezko burokrazia oso bat eskainita, exekutatu egiten dituzte.

Droneen aita sionista

1950eko hamarkadan, AEBetako armada droneak erabiltzen hasi zen gatazka guneetan zaintza eta errekonozimendu misioetarako. 1994ko uztailaren 3an izan zen Predator dronearen lehen hegaldia, armatuta egon gabe. 1995eko uztailaren, Predatorrek Balkanen gainetik egin zuen hegan zaintza misioetan. Kontuan izan behar da, 2000. urtera arte, droneen bateriaren autonomia 15 minutukoa zela, eta etengabe kargatu behar zela. 2000. urtetik aurrera, CIA droneak bidaltzen hasi zen Afganistanera, eta irailaren 11ko atentatuaren ondoren lehen drone armatuak jarri ziren martxan. 2002ko otsailaren 4an erabili zuten AEBek lehen aldiz aurreneko Predator armatua. Helburua Osama bin Laden hiltzea zen. Haren partez, Daraz Khan izeneko afganiar errugabea hil zuten, txatarra biltzen ari zela. Predator lehen drone armatuak aro berri bat ezarri du eta sustrai sionistak ditu.

Abraham Karem Bagdaden jaio zen 1937an. 14 urterekin Israelera emigratu zuen jatorri juduko bere familiarekin batera. Han, unibertsitate ospetsuenetako batean ingeniari gisa trebatu zen. Ikasten ari zela, armada sionistaren aireko armadan sartu eta zazpi urtez aritu zen. 1974an, bere enpresa sortu eta tripulaziorik gabeko hegazkinak diseinatzeko hasten erabaki zuen. Karemek eraiki zuen lehen dronea armada sionistarentzat egin zuen, ondoren arabia-

rren aurka erabili zutena Yom Kippurreko gerran. Israelgo armadatik ez zuen jaso berak espero zuen arreta eta hala, 1977an AEBetara zorte hobea- ren bila joatea erabaki zuen.

Los Angelesen enpresa txiki bat sortu zuen, Leading Systems Inc, eta han sortu zuen Karemek AEBetan hegan egin zuen lehen dronea. Hor abiatu zuen bere karrera eta ordutik 20 bat ibilgailuren inguruko patenteak erregistratu ditu, baina bere asmakizunik ospetsuena MQ-1 Predator da, Afganistanen "debutatu" zutena eta oraindik AEBetan eta hainbat herrialdetako airearmadetan lanean jarraitzen duena. Bere lanaren emaitzak ondorengo ezizena ekarri dio: *Drone father* (Droneen aita).

Ezagun egiten hasi zenean, Aerean Space aldizkariak esan zuen Predator hegazkinak mundua aldatuko zuela. Eta hala izan da. Gaur egun, AEBetako dronerik hilgarriena General Atomics MQ-9 Reaper da, Predator B gisa ere ezagun dena. Hau da, Karemek asmatutakoaren ondorengoa. 20 metro baino gehiagoko hegazkina da, ia bost tonako pisua duena. Milaka kilometro distantziatik gobernatu daiteke, orduko 300 kilometro abiadurara iristen da, lau Hellfire misil eta hainbat lehergailuekin kargatuta, eta 14 orduz airean mantentzen da. AEBek mota horretako 300 drone baino gehiago dauzkate, 2021eko datu ofizialen arabera. Bakoitzak 32 milioi dolar inguruko kostua du.



OBAMAK TERRORISTATZAT, ETA, BERAZ, EXEKUTAGARRITZAT JO ZUEN 16 URTETIK GORAKO IA GIZON ORO AFGANISTAN ETA PAKISTANEKO ZENBAIT ESKUALDETAN

2001eko irailaren 11ko erasoen ondoren, George Bush presidentek adierazi zuen gerra modu berriak "nazioarteko gizaki-ehiza" eskatzen zuela. Inperialismoaren forma berri horrek subjektu mugagabe eta moldagarri bat sortzea beharrezkoa zuen bere burua justifikatzeko: terrorista. Ehiztari mentalitatea eta gizatasunik gabeko terroristaren eskutik abiatu zuten "terrorismoaren aurkako gerra" delakoa.

Gerra konbentzionaletik dro-
neen gerrarako trantsizio hori are
gehiago bizkortu zen Afganistan eta
Irakeko inbasioek porrot egin on-
doren. Aldaketa hori "gizatiarrago"
izango zela aurkeztu zuten: ohiko
gerraren aldean eragiten dituen ba-
ja-kopuru "txikiagatik". Egin kontu,
estatistika apalenez diote 650.000
irakiar hil zituztela AEBek Irakeko
Gerran. CIAko zuzendari ohi eta Ira-
keko Gerrako jeneral David Petraeu-
sen kolaboratzaile David Kilcullen
aditu "kontraterroristak" AEBetako
Kongresuan adierazi zuen Irakeko
Gerran biktimen proportzioa zela
50 zibil borrokalari bakoitzeko. Eta

gaineratu zuen proportzio hori ez
zela prozesu jasangarria, are indar-
keria handiagoa eragiten zuelako.

AEBetako aurrekontu militarra
-defentsa gastu handien zerran-
dan bere atzetik zeuden dozena na-
zioen aurrekontuak batuta baino
handiagoa zena- bikoiztu egin zen
XX. mendeko lehen hamarkadan.
Eta horrekin batera, garai batean
estatuaren bidegabekeriaren aurrean

pertsonaren bermea zen errugabe-
tasun-presuntzioaren osteko aroari
hasiera ematen zioten drone milita-
rrek. Mundu mailako eragina izan
duen prozesu horretan, pertsona
baten ardura gailendu da: Barack
Obama Bakearen Nobel sariduna.

YES, WE DRONE

Afganistan eta Irakeko esperien-
tziekin, Alderdi Demokratikak ulertu
zuen gatazka berriak beste era ba-
tera planteatu behar zituela, gerra-
ren aurka mobilizatutako gizarte
anestesiatu nahi bazuen behintzat.
Inperialismo globalaren zigiluarekin
markatutako gerrek, areago suntsi-
pen masiborako armak edukitzea gi-
sako argudio ahulekin justifikatuta-
koek, gizartearen zati handi batean
aurkakotasuna ekarri zuten. Beraz,
nola murgildu gatazka berrietan,
lasterketa militarista eta munduko
hegemoniaren borroka alde bate-
ra utzi gabe? Erantzuna arma batek
eman zuen, indarkeriaren errealita-
tea botere-guneetan ez hautematea
ahalbidetzen duena: dronea.


Droneen gerran herrialde inpe-
rialistetako biztanleriaren zati txiki
batek baino ez du parte hartzen: pi-
lotuak. Horrek zaildu egiten du ge-
rra horren aurkako benetako opo-
sizio politikoa eratzea. Horregatik,
AEBetako drone programa mundu-
ko sekretuenetakoa da, eta, gainera,
CIAk zuzentzen du, eta ez armadak,
edozein motatako tutoretza judizia-
la are gehiago zailtzeko. Ikuspegi
aldaketa horretara Obamaren "Yes,
we can" ezin hobeto egokitu zen.

Obamak bere burua aurkeztu
zuen Guantanamo base militarra
itxiko zuen hautagai gisa. Eta hitza
ez betetzeaz gain, Guantanamoen
"salbuespen politikoa" areago
zabaldu zuen. Bere aurrekoak,
George Bush, mila "terrorista
susmagarri" inguru atxilotu zituen
mundu osoan barrena, Kubara
eraman zituen, torturatu egin
zituen, eta epaiketa amaigabe egin



PAKISTANEN 2014an, nazioarteko artista talde batek instalazio erraldoi bat egin zuen, AEBetako drone baten kamerak hor enfokatzen zuenean, gidariari "ulertarazteko" ez zela intsektuak hiltzen ari, gizakiak baizik. Droneen eraso batean gurasoak eta bi anaia galdu zituen neskatoren argazkia da.

Zazana, zerutik dena dakusan begi itsua



Hainbestekoa da Gazan droneek eguneroko bizitzan eta iruditegi kolektiboan daukaten eragina ezen hitz propio bat asmatu dutela droneentzat: *Zazana*. Hitz onomatopeikoa da, gazako dialektoan.

The Drone Eats With Me: A Gaza Diary liburuan (Droneak nirekin jaten du: Gazako egunkari bat), Atef Abu Saif idazle palestinarrek kontakizun pertsonala eskaintzen du, Israelek Gazaren aurkako 2014ko erasoaldiaren zazpi asteak familiarekin nola bizi izan zituen azaltzeko. 2014ko uztailearen 8tik abuztuaren 26ko su-etenera arte, indar armatu sionistek 2.300 palestinar baino gehiago hil zituzten, gehienak zibilak, 18.000 etxebizitza suntsitu zituzten eta 108.000 familia etxerik gabe utzi. 10.000 baino gehiago zauritu zituzten, horien artean 3.374 haur. Horretarako, droneak masiboki erabili zituzten zaintzarako eta erasoetarako.

Dronen nonahiko zelatak etengabe urratzen ditu Gazako herritarren eguneroko errutinak eta espazio intimoa. Abu Saifen hitzetan, "hormak eta teitatuak zeharkatzen dituen eta biztanleriaren une pribatu eta intimoenetan barneratzen den dronearen begirada sarkorraren eraginpean etengabe egotearen sentazio isila" da. Gaza munduko aire zabaleko kartzelarik handiena eta planeta osoan es-

tuki zelatatu eta kontrolatuena izatea ez da debalde. Beldurrezko giro hori oinarritzko praktika sozialetan ere barneratzen da, hala nola otorduetan, janaria prestatzean eta lo egitean. Honela kontatzen du Abu Saifek: "Bazkaria prest dago. Umeak esnatu ditut. Bost plateren inguruan eseri gara denok: gazta zuria, hummusa, laranja marmelada, gazta horia eta olibak. Iluntasunak (etengabeko argindarra mozketengatik aipatzen du) gurekin jaten du. Beldurra eta antsietateak gurekin jaten dute. Ezezagunak gurekin jaten du. F16ak gurekin bazkaltzen du. Droneak eta Israelgo tokiren batean dagoen bere operadoreak, gurekin jaten dute".

Liburuaren beste pasarte batean kontatzen du Abu Annas lagunarekin eta bere semearekin etxe aurrean shisha pipa bat erretzeko elkartu ziren arratsaldean gertatutakoa. Pipa berotu ondoren, bere lagunaren semeak kalean erretzeak dituen arriskuez ohartarazten die: "Droneak arma gisa interpreta lezake piparen bero-seinalea". Aitak kontra egiten dionean, gazteak gehitzen du: "Dronea itsua da [...] bero-seinale huts bat, horixe da behar duen guztia eraso egiteko". Drone israeldarrek pertsona edo objektu "susmagarriak" -armak edo lehergailuak- identifikatze-

ko erabiltzen dituzten kamera termikoez eta lente infragorriez ari da semea.

"Drone-operadorearen azalean jarri behar dugu; drone-operadore gisa pentsatu behar dugu; errespetatu behar dugu aginduak betetzeko bere grin itsua, haren misioaren helburuen logika mutua. Gogoan izan behar dugu beti operadore horren baldintzarik gabeko obedientzia", dio Abu Saifek.

2019az geroztik Palestinar Aginte Nazionalako Kultura ministroa da Atef Abu Saif eta Zisjordanian bizi da. Halere, 2023ko urriaren 7an Israelek Gazaren kontrako genozidioa hasi zuenean, Gazako Zerrendan zegoen bera. Familia bisitatzeraz joan zen, eta han gelditzea erabaki zuen. 2014an egin bezala, oraingoan ere egunerokoa idatzi du sionisten oldarraldiaren lehen 40 egunetako bizipenekin: *Don't look left, a diary of genocide* (Ez begiratu ezkerrera, genozidioaren egunerokoa). Abenduaren 29an Egiptora pasatzea lortu zuen haren semearekin, eta Ramallahn dira egun.

Gazatarrek *zazana* diote dronea entzun edo ikustean, baina are tragiko eta ironikoagoa da Israelgo Elbit Systems armagile handiak bere Skylark dronea merkaturatzeko ondoko eslogana erabili izana: "Izar bat jaio zen Gazako zeruetan".

zizkien. Hori prozesu zikin xamarra da eta, batez ere, oso prentsa txarra du. Obama azkarragoa izan zen eta Bushen politika findu zuen. Errazagoa eta politikoki salgarriagoa zen "susmagarriak" drone baten bidez exekutatzea. Oso simple gainera, haien izenak *Terror Tuesdays* ospetsuetan osatutako zerrendetan idazte hutsarekin. Asteartero, segurtasun nazionalako aparatuetako dozenaka kide biltzen ziren bideokonferentzia bidez, Obama buru zutela. *Kill List*-a osatzen zuten, exekutatu behar zutenen zerrenda. Genozida onenen antzera, asteartero-asteartero Barack Obamak pertsonak hiltzeko aginduak sinatzen zituen, nor ziren ere ez zekizkienak. Horrela bakarrik ulertzen da terrorismoagatik ia inor ez zutela atxilotu bere gobernuak iraun zuen urteetan. Adibide gisa, 2011ko lehen sei hilabeteetan 145 drone eraso egin zituzten Muammar al Kadafiren erregimenaren aurka, eta garai hartan Obamaren administrazioak publikoki behin eta berriz ukatu zuen Libiaren aurkako gerrarik zegoenik. Hilketak bai, gerra ez.

AEBetako lehen presidente beltzak honako termino hau ere egin zuen ospetsu: *Signature strikes*. Hau da, pertsonak exekutatzeko agintzea, haien portaera "terroristen jokabidearen" nahikoa antzekotzat jotzen delako. Beste era batez esanda, jendea hiltzea hainbat datu eta patroiren arabera: jokabidea, jatorria, familia eta lagunak eta abar. Horren ondorioz, Obamak terroristatzat, eta, beraz, exekutagarritzat jo zuen 16 urtetik gorako ia gizon oro Afganistan eta Pakistaneko zenbait eskualdetan. 2015ean, *The Intercept* aldizkariak, *The Drone Papers* ikerketaren bidez, AEBetako armadak Afganistanen 2012ko urtarriletik 2013ko otsailera bitartean egindako ekintzak deskribatzen dituzten dokumentu sailkatuak eskuratu zituen.



CODEPINK

DRONEA aurkako aktibista feministak Creecheko base militarren kanpokaldean.

Datu horien arabera, 200 pertsona hil zituzten droneen bidez, eta horietatik 35 baino ez ziren helburu militarrek. Hau da, %82,5 "bilatu gabeko" biktimak izan ziren, baina ofizialki eraso horietan hildako guztiak "borrokan hildako etsai" gisa aurkeztu zituen AEBetako Gobernuak.

Lehen CIAko edo Mossadeko agente sekretuek munduan barrena egiten zuten "lan" bera da, baina droneei esker, gaitasun hiltzaile hori sinplifikatu eta naturalizatu egin da era esponenzialean. XXI. mendearen hasieran dronearen mehatxu ikusezina arma nagusi bihurtu zen, AEBetako munduko nagusitasun zuriaren fantasia zaharrak inposatzen segitzeko, eta "bakearen alde" gerra egiten jarraitzeko.

Hilketa selektiboen programarekin Guantanamo noranahi eraman zuten, eta errugabetasun-presuntziorako eskubidea gero eta leku gehiagotan murriztu. Joera hori are gehiago hedatu da azken urteotan telekomunikazioen eta pribatutasunaren esparruan. Espioitza masiborako programek munduko populazio osoaren datu pertsonalen kopuru itzelak osten dituzte egu-


nero. "Matxinoen aurkako" estrategia beraren parte dira, arbitrarioki akusatua edo zelatatua ez izateko eskubidea ezabatzen duena.

"Benetan ona naiz hiltzen, ez nekien nire indarguneetako bat izango zenik", esan zuen Bakearen Nobel saridunak Osama Bin Laden Pakistanen exekutatu ondoren.

KATEA EZ DA ETEN

2017an Donald Trump boterera iritsi zenean, ez zen aldaketa handirik izan. Trumpek eutsi zion Obamarengandik jasotako drone-programaren ildoari. CIAri ahalmen handiagoa eman zion droneen bidezko erasoak nazio gehiagotara hedatzeko, Libia, Somalia eta Yemen kasu. Trumpek kargua hartu eta hurrengo hilabeteetan, AEBetako drone erasoen maiztasuna %432 igo zen, 1,25 egunean behin eraso bat, Obamarekin batezbeste 5,4koa izan zen. Hala ere, kontaketa globalean, eraso gutxiago izan ziren Trumpen agintaldian Obamarekin baino. Brown Unibertsitateko Nazioarteko Gaietarako Watson Institutuaren arabera, 2018 eta 2021 artean, drone yankiek 85 herrialdetan

Ehizaren fantasia desegiten denean



Las Vegas hiri ezagunetik ordu-betera Creech-eko aire-base militarra dago basamortuaren erdian. 1950eko hamarkadan, Gerra Hotzean, ia mila leherketa nuklear "esperimentalen" lekua izateagatik ospetsu egin zen. Creechen koordinatu dituzte azken 20 urteotan AEBek mundu osotik egindako drone eraso gehienak.

Base militarren sarrerako atearen gainean ondoko hitzak daude idatzita: "Ehiztarien etxea". Drone pilotuei eta operadoreei ehiztari deitzen diete. Drone pilotu ohien memorieta (Matt J. Martin, 2010), "arratoi", "uso", "oilu", "sagu" eta abarren ehiza deskribatzen dute, pertsonen ordeztu. Hildakoei *bugspat* (intsektuen zipriztina) deitzen diete. Pertsona bat hiltzea askoz errazagoa da biktimari gizatasuna kentzen bazaio eta animaliak hiltzen ari zaren fantasiarekin estaltzen bada. Ikuspegi deshumanizatzaile hori oso presente dago gaur egun ere. Israelgo Defentsa ministro Yoav Gallantek ondorengo esan zuen 2023ko urriaren 9an: Gazan, "giza animaliak dira eta horren arabera tratatuko ditugu". Orduetik 33.000 "animalia" ehizatu dituzte Gazan.

Esan izan da dronen bidezko gerrak gerra despertsonalizatzen duela, hiltzailearen erantzukizuna lausotzen delako. Operadoreek

indarkeriarekin duten harremana bideojokoekin parekatzen da. Indarkeria esperientzia traumatikoari utzi eta jarduera ia ludiko bilakatzen da. AEBetako armadak bideojokoak erabiltzen ditu errekrutatze-prozesuetan eta entrenamenduetan, eskua eta begia azkar koordinatzeko, aldi berean ataza askoren ardura garatzeko eta ikusmen-azkartasuna lantzeko. Adibidez, *Call of Duty* joko ezagunaren sortzaileetako bat Pentagonoaren aholkularia da defentsa kontuetan.

Baina egungo gerraren konplexutasuna bideojokoen mailara murriztu nahi duten diskurtsoak errealitatearekin bat ez datozen karikaturak dira. Askok kontra-koia salatzen du. Pilotuek hilabeteetan behatu behar dituzte beren helburu militarrek, ezagutzen dituzte, egunerokoan ikusten dituzte, beren familia eta alaba-semeak ezagutzen dituzte, unerik intimoenetan ere behatzen dituzte. Horren ondorioz, askok ezin dio eutsi ehiztari izatearen fantasiari, haren biktimak harrapakin bilakatzen dituen.

Joseba Zulaika Irureta antropologoak gertutik ezagutu eta aztertu du gaia. Ia 30 urtez, 2019ra arte, Renoko Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko irakaslea izan da, eta AEBetako Gobernuaren diskurtso kontrate-

rorista izan du aztergai. Haren azken liburua da *Muerte desde Las Vegas. La Guerra de drones y la resistencia a la fantasia americana* (Heriotza Las Vegastik. Droneen gerra eta amerikar fantasiaren kontrako erresistentzia, Hincapie, 2022).

Urtean zenbait aldiz Creechen aurrean elkartzen dira drone eta nuklearren aurkako militanteak, eta azken urteetan Hollomango base militarren ere bai, Mexiko Berriko basamortuan. AEBetako militarismoaren aurka protesta egitea da helburua. 2016 eta 2018 urte artean, Zulaika haiekin bizi izan zen eta bere jardueretan hartu zuen parte. Droneen aurkako ekintzaileak elkarriketatzeaz gain, Creecheko pilotu ohien esperientziak ezagutu zituen, horien artean zeuden Brandon Bryant eta Cian Westmoreland. Biek parte hartu zuten dronen aurkako taldeen bileretan, eta haien bizi-penak partekatu zituzten.

Bryantek 19 urte zituen 2007an institutuan graduatu zenean eta armadan sartu zen unibertsitatean ikasteko zorrak saihesteko. Bryantek misil bat jaurti zuen lehen aldian, bi gizon hil zituen momentuan, eta hirugarren bat bere agonia bizi apurka-apurka hiltzen ikusi zuen. Inoiz ez zitzaien burutik pasa gizarteak, artean nerabe zela, serieko hiltzaile

→ bihurtzea eskatuko zionik. Apaiz batekin hitz egin zuen horri buruz eta esan zion "dena Jainkoaren planaren parte" zela. Zulaikak bere liburuan jaso duenez, Bryantek kontatu zuen behin droneekin txikitzen ari ziren zonalde batean ama bat ikusi zuela bere alaba-semeak zubi batetik behera botatzen, eta, ondoren, bera ere bere buruaz beste egiten.

Creechen sartu eta lau urtera, egun batean, bere dro-nearen kontrol-estazioan zela, ahotik odola zeriola konortea galdu zuen. Sindrome post-traumatikoa diagnostikatu eta etxera bidali zuten. Bere gorputzak ezin izan zuen gehiago jasan masiboki hiltzen jarraitzearen trauma. Sari gisa, zenbat "etsai" hiltzen lagundu zuen adierazten zuen errekonozimendua jaso zuen: 1.626. Bryant etxerik gabeko arlote eta lur jotako gizon bihurtu zen.

William Westmorelanden aita AEBetako armadako jenerala izan zen Vietnamen, berak zuzendu zituen AEBetako tropak gerra odoltsu hartan. Bere seme Cianek, Creechen egon ondoren, bere burua "gerra-kriminal" gisa definitzen du. Zulaikak jaso duenez, denbora batez drone pilotu lanetan aritu ondoren, Cian Westmorelandek zenbat zibil hil zituzten galdetu zien Creecheko buruzagiei. "Ez nuen erantzunik jaso, orduan nire kabuz ikertzea erabaki nuen eta ondorioztatu nuen 359 zibil hil genituela. Hiltzen lagundu nuen gazte horiengatik nago orain hemen", zioen. Zulaikak ezagutu zuenean 22 urte zituen Westmorelandek, traumati-

zatuta eta terapiaren zegoen. Obama presidentearen arabera, bere administrazioaren zortzi urteetan, ofizialki hamar bat mila hildako izan ziren, horietatik zibilak 64 eta 116 artean baino ez zirela izan zioten. Westmorelandek aipatzen dituen 359 zibilak 2009an exekutatu zituzten, bere komandante buru Barack Hussein Obamari Bakearen Nobel saria eman zioten urte berean. *Dawn* egunkari pakistandarren arabera, 2009an AEBetako droneek Pakistanen exekutaturako 708 pertsonetatik bost baino ez ziren militante ezagunak.

Baina ustezko "ezjakintasun" hori "terrorismoaren aurkako gerran" funtsezko oinarrietako bat da. Zulaikak azpimarratu duen bezala, ez zaie interesatzen terroristen subjektibotasuna, hobe dute ez jakitea eta ez ulertzea, pertsona bat zergatik den den bezalakoa, errezagoa zaiela bere giza izaera ukatzea. Ekuazio horretan droneek zeregin garrantzitsua dute, prozesua are gehiago despertsonifikatzen laguntzen baitute. "Soldaduak ezin du egunero-egunero birplan-teatu bera soldadua edo hiltzailea den, baina sinetsi duten fikzioa erortzen denean, orduan trauma agertzen da".

Bryant, Westmoreland eta haiek bezalako ehunka drone piloturen arazoa da, dio Zulaikak, gehiegi ikusi dutela. Horrela hobeto ulertzen da zergatik Nevadan, bi milioi eta erdi pertsonako biztanleriarekin, 300.000 gerrako beterano errolatuta dauden eta horietatik %20k traumaren bat duela kalkulatu da.

egin zituzten "kontraterrorismo operazioak".

Institutu bereko *The Costs of War* 2023ko maiatzeko txostenaren arabera, 2001eko I-11tik aurrera piztutako gerra-eremuetan, Afganistan, Pakistan, Irak, Siria eta Yemen barne, hildakoen kopurua gutxienez lau milioi eta erdi pertsonatik gorakoa izan daiteke, baina heriotza-kopuru zehatza oraindik ez da ezagutzen. Txostenean azpimarratu dutenez, pertsona asko hil dituzte bonbardaketetan, baina beste asko, batez ere haurrak, gerraren osteko ondorioengatik hil dira, hala nola gaixotasunak hedatzeagatik.

Trumpen ostean, Joe Biden iritsi zen agintera. Hilketa selektibo masiboz jositako zortzi urteko agintaldian Obamaren bigarrena izan zena, bere presidenteordea. Biden izan zen erreportaje honen hasieran azaldu dugun Kabuleko eraso baimendu zuena. TROPak Afganistandik erretiratu ondoren egindako hitzartze publikoan, Bidenek agindu zuen terroristak "ehizatuko" zituela urrutiko drone- eta misil-erasoekin. Hala ere, Bidenekin ez da drone gerrarik izan, "noizbehinkako eraso" batzuk baidiz. Egoera geopolitikoa aldatu egin da, eta AEBetako jokamoldea ere bai. Txinaren eta bere aliatuen aurkako ageriko agresibitateaz gain, Bidenen agintaldiaren ezaugarri nagusiak dira zenbait gerra eta genozidiotan duen erantzukizuna eta parte-hartze zuzena, Ukraina eta Palestina buru. Droneak ere funtsezko pieza izaten ari diren bi sarraski, hain zuzen.

Bush, Obama, Trump eta Bidenen gobernuen "lorpena" ez da soilik izan euren ahalmen hiltzailea munduko edozein bazterretara zabaltzea. Haiek zabalduzako biderei "esker" egun dozenaka herrialdek dauzkate drone armatuak. 2001 eta 2015 artean, AEBek, Israelek eta Erresuma Batuak bakarrik burutu zituzten drone erasoak. 2014ko udatik 2019ko uda bitarte, nazioarteko

koalizioaren 14.570 drone eraso izan ziren Iraken, eta 19.785 Sirian. Estimazioen arabera, 13.000 zibil hil zituzten, horietatik 2.300 haurrak ziren.

Egun, berrogei bat naziok daukate drone armatuak edo haiek lortzeko prozesuan murgilduta daude. Zerrenda azkar ari da handitzen. Klub horretara batu den azkenetarikoa bat Espainiako Erresuma izan da. 2015eko azaroan, Mariano Rajoyren Ministro Kontseiluak onartu zuen lau Reaper MQ-9 drone eta urrutiko kontrolerako bi estazio mugikor erostea. Baina kritikak arintzeko esan zuten ez zirela inoiz armatuko. Pedro Sanchezen koalizio gobernua ez du konplexurik izan, eta 2023ko hasieran argi berdea eman zuen drone horiei armak gehitzeko.

Kontuan hartu behar da Mendebaldeko droneek bonbardatu dituztenen erreakzio armatua. Berbarako, Iranek droneak eskala masiboan ekoizten ditu. Horietako batzuek 1.500 km baino gehiago hegan egiteko gaitasuna dute, eta, ustez, 10 eta 100 metro arteko perimetroan jotzen asmatzen dute. Matxino talde armatu askok ere droneak erabiltzen ditu. Denetarik daude, batzuk sofistikatuagoak dira, hala nola Shahed irandarrak. Apirilaren 13an, Israelen menpeko lurraldearen aurka Iranek inoiz egin duen lehen erasoan 300 bat misil eta drone jaurti zituen, eta tartean ziren Shahed-136 modelokoak. Yemengo huthiek ere horiek erabiltzen dituzte Israelerako bidean dauden itsasontzien aurka. Beste batzuek "etxe" droneak dituzte, adibidez, erresistentzia armatu palestinarrik urriaren 7an erabili zituenak. Eraso abiaturik drone txiki batzuek indargabetu zituztenean Gazako harresiaren defentsak eta zaintza-postuak. Defentsa sionistak "itsutu" ondoren, harresia eraitsi



UKRAINAKO soldadu batzuk drone bat kontrolatzen bunker batetik 2024ko urtarrilean.



EGUN, BERROGEI BAT NAZIOK DAUZKATE DRONE ARMATUAK EDO HAIK LORTZEKO PROZESUAN MURGILDUTA DAUDE

eta militante armatuak Gaza inguruko zenbait Kibbutzetan sartu ahal izan ziren, ehunka israeldar hil edo bahitzeko.

DRONEEN LEHEN GERRA

Gaur egun ohiko zaigu drone bidezko eraso eta hilketei buruzko berriak irakurtzea. Bi hamarkada baino gehiagoren ondoren, droneen erabilera hedatu eta naturalizatu egin da, eta, bide horretan, Ukrainako gerrak beste mugarri bat ezarri du: gataskan dauden bi aldeek droneak hain modu masibo eta estrategikoan erabiltzen dituzten lehen aldia da. Hasiera-hasieratik, gainera. Ukrainako inbasioaren

lehen egunetan, Kieverako bidean abiatu ziren Errusiako tankeen ilara handiei droneen bidez erantzun zieten nagusiki Ukrainako indarrek. Indar errusiarren aitzinatzea moteltzea lortu zuten.

Goi-teknologiako drone amerikar ezagunak, hala nola 20 eta 30 milioi dolar arteko kostua duten Predator, Reaper edo Eagle modeloak, ez daude Ukrainan. Tripulaziorik gabeko beste hegazkin handiak, Turkiako Bayraktar TB2 edo Errusiako Orion kasu, paper garrantzitsua betetzen ari dira gerran, baina diferentzia benetan ezarri dutenak dira drone komertzialak, gudu frontearen nonahi daudenak.

Telefono mugikor soil batekin kontrolatu daitezkeen drone txikiak dira. 500 bat eurotik aurrera, bereizmen handiko 4K kamera eta 40 minutuko hegaldi-autonomia dituen aparatua lor daiteke. 250 gramo baino gutxiagoko pisuarekin, 10 kilometroko distantziara transmititzen dute bideoa, eta orduko 60 kilometroko abiadurara iristen dira. Eta horiek modelo sinpleenak baino ez dira. Beren prezio txikiak ia erabili eta

Propagandarako tresna berria

Ukrainako gerraren benetakoz izar bihurtu dira droneak, baina ez hainbeste ohiko gudu-zelaian, baizik eta gudari ere badagokion baina oso bestelakoa den eremu batean: gerra-propaganda. Moskuk eta Kievek erabiltzen dituzte tripulaziorik gabeko hegazkinek grabatutako bideoak beren gerra informaziotik elikatzeke eta herritarrengan eragiten saiatzeko beren interesen arabera.

Sare sozialetan, Telegrameko taldeetan eta, oro har, Interneten, Ukrainako eta Errusiako armadek eta soldaduek dronen grabazioak zabaldu dituzte. Etsaiak egindako suntsipena erakusten duten irudiak dira, erabat birrindurako hirien bideoak, edo arerioaren moralak txikitzeke egindako eraso "arrakastatsuak".

Bideo batzuetan ukrainar droneek errusiar armada-
ren walki talkieak lapurtzen dituzte, etsaien lerroen atzean eroritako drone batzuk erreskatatzen dituzten droneak ere badira, drone txikiak tanke baten barruan granadak jaurti, urrundu eta leherketa grabatzen dutenak, drone kamikazeen jaietsiera hilgarria... Oso egoera errealak dira, eta, gogorrak izan arren, oso propagandistikoak. Horren erakusgarri, paradigmatikoa da 2022ko amaieran zabaldutakoa. Ukrainako armadak bideoa zabaldu zuen errusieraz,

etsaiei azaltzeko nola errenditu drone baten aurrean. Bideo biral horretan, Bajmut ondoko lubaki batean grabatua, soldadu errusiar bat ageri da drone bati keinuka tiro egin ez dezan. Ondoren, beste drone baten bidez armada ukrainarrak soldadu errusiarrari helarazten dio errotuladorez idatzitako ohar bat, ondokoa dioena: "Amore eman eta jarraitu droneari". Segituan, soldadua errenditu, arma askatu eta droneari jarraitzen dio ukrainar indarrengana heldu eta preso hartu arte.

Ukrainak ere drone txikiak erabilia zibilen aurkako erasoak egin ditu Errusiako hainbat lekutan. Militarki eraso hutsalak dira, baina egiazko helburua eraso horiek grabatu eta propaganda gisa zabaltea da. Hala, Errusiako gizarteari gogorarazi nahi diote gerran daudela eta haiek ere, frontetik milaka kilometrora egon arren, "helburu militarrek" direla.

Gerraren ikuspegi subjektibo eta gertuko hori, hain modu masiboan erabiltzea gerra honen berritasunetako bat da. Honezkerok ez zaigu deigarri egiten Internetera sarbidea duen edonoren eskura milaka bideo izatea, gerra-frontean berean eta ia zuzenean grabatuak. Propaganda beti izan da arma nagusietako bat guduetan, eta gaur egun inoiz baino gehiago.

botatzeko moduko arma bihurtu ditu, eta gerraren hasieratik haien erabilera hazi besterik ez da egin.

Hondartzan selfie bat ateratzeko sortutako tresna hori ezinbesteko bihurtu da etsaiak kontrolatutako eremuari buruzko informazioa lortzeko. Errekonozimendurako erabiltzen da gehien, txikiak, mugikortasun handikoak eta, batez ere, isilak baitira. Oso informazio erabilgarria bidaltzeko gai dira, hala nola helburu militar baten kokapen zehatza, ondoren artilleriak eraso egin dezan. Modelo batzuek kamera termikoak ere badituzte.

Marka ugari dago, baina azken hamarkadan DJI multinazional txinatarra da merkatu hori gehien garatu duena. Enpresa horientzat erabateko pagotxa ekonomikoa izan da aisialdirako beren droneak gerra-arma bihurtu izana. Salmentak esponenzialki ugari dira, nahiz eta marka indarkeriarekin eta hilketarekin lotzea epe luzera kalterako izan daitekeen arren.

Drone horiek GPS batez hornituta daude, eta, beraz, munduko leku jakin batzuetan ezin hegan egiteko programatu daitezke. DJI-k hala agindu zuen Siriako Gerran, eta bere droneei ia Irak eta Siria osoan bazterketa-eremu bat ezarri zien. 2022ko apirilean, DJI-k erabaki zuen bere droneak Ukrainan eta Errusian saltzeari uztea, "borrokan inork erabiliko ez dituela bermatzeko", bere gobernuaren "ustezko" jarra bere eginda: ez lerrokatzea inoren alde. Baina neurri hutsala da, beste herrialde batzuetatik eros baitaitezke eta ondoren Ukrainara edo Errusiara bidali. Arinak eta txikiak direnez, erraz garraiatu daitezke kantitate handiak.

Ukrainak badu abantaila bat. Drone "merkeak" dira, bai, baina gaizki deituriko Lehen Mundukoentzat baino ez. Beraz, drone horiek ugariak dira Mendebaldeko European eta AEBetan, gerra honetan Ukrainaren aliatu nagusiak direnak. Eta horrela, Ukrainako armadak droneak jasotzen ditu herrialde horietatik, kanpaina publikoen bidez, herritarrei dirua

eskatzen zaie drone merkeak masiboki erosteko eta ondoren gerrara bidaltzeko. Europar Batasuneko edozein herrialdetan erosi, trailerretan Ukrainara bidali, eta han gerrarako egokitzen dituzte. Horretarako, jakina, alde aurretik prestakuntza behar da. Ukrainan, 2014an Donbassen aurkako gerra hasi zenetik, bereziki lan horretan diharduten taldeak daude. Ezagunena Aerorozvidka da. Nathan Khazin israeldar-ukrainar errabino eta militar ohiak sortutako taldea da, Azov batailoi faxistaren sorreran ere parte hartu zuena.

Drone txikienak ezin dira arma gisa erabili, eta, esan bezala, erre-konozimendu-lanetarako erabiltzen dituzte. Kilo erditik gorako modelook egokitu egiten dituzte lehergai txikiak edo granadak garraiatzeko, tankeen dorretxoetan edo lubakietan leherketak eragiteko. Granada horiek ere "etxean egindakoak" izan daitezke. Pisu txikiagoa izan dezaten, 3D inprimagailuekin inprimatzen dituzte, eta ondoren lehergaia txertatzen diete.

Drone komertzial horiek kamikaze gisa ere erabil daitezke. Horretarako ere badira Boluntario taldeak Ukrainan. Talde batzuek karbono zuntza laserrarekin



UKRAINAN BOLUNTARIO TALDE BATZUEK KARBONO ZUNTZA LASERRAREKIN MOZTEN DUTE 1,5 KG LEHERGAI JAURTITZECO GAI DIREN DRONE KAMIKAZEAK EGITEKO

mozten dute 1,5 kg lehergai jaurtitzeko gai diren drone kamikazeak egiteko. UAV-7 dute izena eta bakoitzak 2.000 dolar inguru balio du, bere kontrol-kontsola barne.

Ejertzitoaren antolaketa bera ere eraldatu egin da. Ukrainako eraso talde bat 12-16 soldaduk osatzen dute, eta gaur egun ia drone operadore kopuru bera doa haiekin. Nahiz eta aireko droneak Ukrainan tripulaziorik gabeko arma ohikoena izan, ukrainarrek itsasontzi kamikazeak ere erabili dituzte Itsaso Beltzean

errusiarrei eraso egiteko, Ukrainak ez baitu itsas indar handirik.

Drone txiki hauen iraupena oso txikia da. Zenbait argitalpenen arabera, batezbestekoa da hiru hegaldi. Gerra elektronikoan, kontraneurrien bitimak dira. Dronearen eta pilotuaren arteko komunikazioa eteten dute, eta, beraz, lurrera erorarazten dituzte, aparatua erabilezin utzita. Baina merkeak eta ugariak direnez, haien galera onargarria zaie. Royal United Services Institutuaren segurtasun eta defentsari buruzko think tank-aren txosten baten arabera, Ukrainak 10.000 drone inguru galtzen ditu hilero, gehienak komertzialak edo etxean egindakoak.

Ukrainak drone-industria propioa garatu du, eta droneen munduko ekoizpen-zentro handienetakoa da. Ukrainako Eraldaketa Digitaleko ministroorde Alex Bornyakoven arabera, herrialdean dagoeneko 300 enpresa baino gehiago ari dira lanean, eta 2024an milioi bat drone kamikaze baino gehiago ekoitziko dituzte. Armagintzako enpresen



KAMIKAZEA

izateko egokitu duten milaka drone komertzialetako bat Ukrainan.

produktuetarako probaleku aparta da Ukraina, eta han dauden atzerriko enpresen kopurua izugarria da.

ETORKIZUN AUTOMATA

Estatuaren indarkeriaren dronifikazioa ari gara bizitzen. Mundu militarrek droneei eta robotei buruz duen lilura nabaria da, haien aldizkari nagusiak errepasatu besterik ez dago. Egungo eta etorkizuneko gerrari buruz pentsatzen duten argitalpen guztiek dronea jartzen dute helburu horren erdigunean.

Ate joka dugun etorkizunak dronearen zehaztasunaren hobekuntza ekarriko du baina, batez ere, haren erabateko automatizazioa. Hau da, dronea modu autonomoan lan egiteko gai izango da, inork haren jarduna, erasoak barne, baieztatu ala ezeztatu beharrik gabe. Horrela, algoritmoek erabakiko lukete zer den "mehatxua" edo nor "etsaia", eta, horren ondorioz, tiro egin ala ez. Lo egiten ez duen soldadua deitzen diote, goserik ez duena, muturreko meteorologiari eusten diona... Arma automata mota horiei hainbatetan

saiatu izan dira nazioartean debekua ezartzen, baina saiakera guztiak blokeatu dituzte AEBek, Erresuma Batuak, Txinak, Errusiak, Israeliek eta Turkiak nagusiki.

Dagoeneko garatu dira modu autonomoan edo erdiautonomoan jarduten duten armak, eta zenbait kasutan baita erabili ere: droneak, itsasontziak, drone-multzoak, itsaspekoak, laser armak... Gazako genozidioan, Israelgo +972 eta *Local Call* hedabideek argitaratu dutenez, armada sionista adimen artifizialeko programa bat erabiltzen ari da, Lavender izenekoa, bonbardatu beharreko helburuak identifikatzeko. Sistema horrek iradokitzen duen bonbardaketa bakoitzean biktima zibilen "kopuru onargarria" identifikatzen du. 2022an, Israeliek arma robotikoak jarri zituen Zisjordaniako Al-Aroubeko errefuxiatuen kanpamentuan. Kameraz inguratutako eta urrutitik kontrolatutako kanoi moduko batzuk ziren, gas negar-eragileak, granada geldiarazleak eta belakipunta duten balak jaurtitzeko diseinatuak. Eta jakina, misilen

aurkako Israelgo sistemarik ezagunenak, eta ziur aski mundukoak, Burdinazko Kupulak, automatikoki jaurtitzen ditu suziriak.

Boris Johnsonen gobernuko defentsa idazkari Ben Wallacek iradoki zuen 2040rako Erresuma Batuko aire indarren %90 tripulaziorik gabeko droneak izango direla eta horrek armada behartuko duela tankeen gisako beste armamentu batzuk kentzera. Kremlinek esan du bere Lancet drone ezaguna, Ukrainan asko erabiltzen dena, modu autonomoan lan egiteko gai dela, baina ez dute argitu ea horrela funtzionatu duen inoiz. AEBetako Gobernuak 2022ko otsailean iragarri zuen Mexikoko mugan zaintza-patruilak indartuko zituela Vision 60 txakur robotaren bidez. AEBetako Itsas Armadak zaintzarako eta alerta goiztiarrerako drone autonomoen flota bat du Ormuzeko itsasartean, Iran eta Oman artean. 2020ko azaroan, AEBetako Itsas Armadak mila drone txikitxoekin – hamabost zentimetrokoak – eraso baten simulazioa egin zuen. Urrutira joan gabe, ehunka drone txikiren arteko koordinazioa ikus dezakegu zenbait drone ikuskizunetan, gaez argiekin zeruan irudiak mugimenduan sortzen dituztenak.

2024ko urtarrilaren 15ean, adimen artifizialean (AA) munduko enpresarik garrantzitsuena denak, OpenIAk, iragarri zuen ez dutela gehiago debekatuko chatGPT programa eta gainerako bere tresnak eremu militarrean erabiltzea. AEBetako Defentsa Departamentuarekin lanean hasi eta berehala egin zuten iragarpena. Enpresako bozeramaile eta Obamaren aholkulari ohi Anna Makanjuk segurtasun nazionaleko arazoak aipatuta justifikatu zuen erabakia, eta azpimarratu zuen AAren "erabilera militarra" baimendu dutela, baina ez armen ekoizpena.

Baina erreportaje honen hasieran aipatu dugun Enric Lujanen li-



AEBETAKO ARMADA



buruan azpimarratzen denez, automatizatuta ala automatizatu gabe dauden hegazkinen hobekuntza maila garrantzirik gabekoa da. Fun-tsezko auzi politikoak berdina izaten jarraitzen du: hilketa selektibo gero eta ohikoagoa da, munduko baztertuen aurka deklaratu gabeko gerra arrazionalizatzeko.

Erakunde askok, Amnistia Internazionala eta erakunde bakezaleak tartean, zalantzan jartzen dituzte drone militarren, eta are gehiago automatizatutako, erabileraren legezatasuna eta justifikazio etikoa. Baina ba al dago gerra egiteko modu justurik? Automatizazioaren "etikotasunari" edo nazioarteko legerira egokitzeari buruzko kezka, azken batean, hilketarako algoritmoen erregulazioari eta hobekuntzari buruzko eztabaidak dira. Lujanek dioen bezala, basakeria inperialistaren "erabilera bidegabeak" aipatzeak berarekin dakar basakeria bera legitimatzea, zenbait arauen arabera egokituta bada ere. Nazioarteko lege humanitarioak ez du inoiz gerra amaitu nahi izan, baizik eta armadek



ETORKIZUNEAN DRONEEN ALGORITMOEK ERABAKI LEZAKETE ZER DEN "MEHATXUA" ETA ZEIN "ETSAIA"

gerra nola egiten duten arautu eta moldatu, dio Eyal Weizman arkitektura irakasle israeldarrak Zisjordaniako hirigintzarekin lotutako giza eskubideen urraketari buruzko bere lanetako batean.

Beraz, kontua ez da ea arma "adimendunak" egongo diren ala ez. Gizaki adimendunaren historia odolez blai dago hasieratik amaierara, eta ia dena robotik gabe isuri da. Robot hiltzailea errentagarria bada, dirua ematen badu, robot hiltzaileak egon egongo dira, *La Marea* aldizkariaren 99. zenbakian osatu duten erreportajearen egoki aipatu duten bezala. Hori bezain sinplea izango da. Ka-

pitalismorik eta inperialismorik gabeko etorkizuna proiektatzeko gai izan arte, behintzat.

Enric Lujanek azpimarratzen duenez, dronea eta kontrol eta hilketa inperialistarako sortutako asmakuntza teknologiko oro politizatu behar dira. "Desnormalizatu egin behar da gaur egun deklaratu gabeko gerra giroa, baita estatuen hilketa selektiboak eta *shoot to kill* (hiltzeko tiro egitea) delakoan oinarritutako 'prebentziorako doktrina' ere".

Droneen misilek ez dute herrialde baketsurik sortu, ez dute "etsairik" garaitu, eta ez dituzte errugabeen heriotzak saihestu. Beldurra eta gorrotoa handitu besterik ez dute egin, baita pertsonen exodo masiboa eta pobrezia areagotu ere. Konpontzen ez badugu, etorkizun hurbilean, Lehen Munduko pribilegiatu zurioi droneek etxeko ateraino ekarriko digute Amazonen erosketa, eta protesta egin eta kezu direnak droneek zelatatuko dituzte. Munduko gainerako pertsonentzat, azal iluneko marjinauentzat, droneek jarraituko dute heriotza zerutik eramaten. ●

Nork kontatzen dizu mundua?

Egin  ARGIAkoa

argia.eus/eginargiakoa

